

Hitzarmen berriaren Negoziazio Mahaia Lehenengo bilera

Lan hitzarmenaren mahai negoziatzaileko lehen bilera izan genuen pasa den asteko irailaren 30an.

Bilera honetan bi gauza aipagarri gertatu ziren, eta ez dakigu esaten zein den larriagoa:

1. Lehenik eta behin, ELAren aldetik aholkulari gisa joandako pertsonen ez zieten bileran sartzen ere utzi. Edozein alorretan gauzatzen diren negoziazioetan, aholkulariak izatea onartzen da, baina badirudi Partzuergoak parte hartze bideak urratu nahi dituela eta negoziazio kolektiboaren aurkako erasoetan lehenengo postuetan kokatu nahi duela.

Zergatik hainbeste oztopo aholkulariak egoteko? Zerbait ezkutatu nahi al dute? Beldurra al digute? Ez dakigu zein den erantzuna, baina nahiko usain txarra du jarrera diktatorial honek eta asko kezkatzen gaitu.

2. Eta bestetik, hitzarmen berriaren negoziazioa edukiz hustu eta 8/2010 errege lege dekretuan jasotzen diren murrizketak partzuergoan ere aplikatu nahi dituztenez, sindikatuokin "negoziatu" nahi omen dituzte eta gure konplizitatea lortu.

Jarrera eta proposamen guztiz lotsagarria! Izan ere, greba egin genuen murrizketen aurkako gure jarrera adierazteko eta orain ez dute ba usteko murrizketa horien aplikazioa negoziatuko dutela gurekin?

Negoziazioa erabat ezinezkoa da termino hauetan. ELAren ordezkariak honela tratatzen badute eta mahai gainean jartzeko duten bakarra murrizketa bada ez dute ELAren partehartze eta konplizitatearik lortuko.

Informatzen jarraituko dugu!!